



1. Zirkularra: EUSKAL LIGEN ARAUDIA – 2014/2015 DENBORALDIA

1.- INSKRIPZIOAK:

1.1.- Kategoria guztietako EUSKAL LIGETAN parte hartzeko inskripzioak idatziz aurkeztu beharko dira EUSKADIKO RUGBY FEDERAZIOAN, bertan adierazita halaber Federazioaren aurrean Klubeko Ordezkararen izena, helbidea eta telefonoa hala nola korrespondentzia igortzeko helbidea. Inskripzio buletin atxikia betetzea lehenesten da.

1.2.- EUSKAL LIGAK, EUSKADIKO KOPAK, URREZKO KOPA ETA TORNEO FEMENINOAK txapelketetako klub partaideek Euskadiko Erakundeen Erregistroak (Eusko Jaurlaritza) onartu Estatutuak hartuko dituzten barne.

2.- INSKRIPZIOAK ETA TXAPELKETEN IZENDAPENAK:

2.1.- Txapelketa	Zenbatekoa €	Inskripziorako epemuga	Txapelketa hasiera
EUSKAL LIGA SENIOR MAILA LIGA VASCA SENIOR	1.000,00	2014-09-04	2014-09-21
EUSKAL LIGA EMAKUMEZKOEN M. LIGA VASCA FEMENINA R15	950,00	2014-09-04	2014-10-12
EMAKUMEZKO TORNEOA R7 TORNEO FEMENINO R7	150,00		
EUSKAL LIGA GAZTEEN MAILA LIGA VASCA JUVENIL (Sub 21)	850,00	2014-09-04	
EUSKAL LIGA KADETEEN MAILA LIGA VASCA CADETE (Sub 18)	850,00	2014-09-04	2014-10-05
EUSKAL LIGA HAURREN MAILA LIGA VASCA INFANTIL (Sub 16)	300,00	2014-09-04	

2.2.- EUSKAL LIGETAN parte hartu nahi duten Klubek arbitraje eskubideak ordaindu beharko dituzte, klub bakoitzeko inskribatu talde kopuruaren arabera:

2.2.1.- 1 TALDE: 750,00€

2.2.2.- 2 TALDE: 1.500,00€

2.2.3.- 3 TALDE: 1.750,00€

2.2.4.- 4 eta/edo EKIPO GEHIAGO: 2.000,00 €

2.3.- Nafarroako Rugby Federazioko klubek, adostu litezkeen bestelako hitzarmenei utzi gabe, ordaindu beharko dute dagozkien inskripzioaz eta arbitraje eskubideez gainera, 26 euroko federazio tasa bat, adostu jokalarri kopuruaren arabera, Euskal Ligatan parte hartzen duen taldeko kopurua 25koa (25x26) izanik.

2.4.- Inskripzioen zenbatekoa ordaindu beharko da, txeke edo baku transferentzia bidez, EUSKADIKO RUGBY FEDERAZIOAREN izenean, **kontu korrante zenb. 0182 5709 41 0201502070** BBVA, Askatasunaren Etorbidea, 36, 20004 Donostia-San Sebastian.

2.5.- Klub guztiek ordaindu beharko dituzte euren inskripzioen zenbatekoa eta arbitraje eskubideen tasa, horiek formalizatzeko unean; ordainketa transferentzia bidez egingo balitz, eginiko inskripzioaren kopia erantsi beharko da. EUSKADIKO RUGBY FEDERAZIOAREN altxortegian kopuru horiek sartzen ez direnean, taldeak inskribatzeko hautatu duen Ligan edo txapelketan parte hartzeari **uko egitea bezala interpretatuko da.**

2.6.- Talde bakar batek ere uko egiten ez badio EUSKAL LIGETAN, KOPETAN ETA EUSKADIKO TORNEOTAN parte hartzeari, jadanik inskribatu ondoren, ez du eskubiderik izango inskripzio horietako zenbatekoa berreskuratzeke.

EUSKADIKO ERRUGBI FEDERAZIOA ■ FEDERACION VASCA DE RUGBY

Errotaburu Pasealekua 1-3º (20018 Donostia-San Sebastian)

Tel.: 943 46 97 68 ■ Fax: 943 47 16 59

E-Mail: secretaria@euskadirugby.org – dptotecnico@euskadirugby.org – lehendakari@euskadirugby.org
www.euskadirugby.org



2.6.1.- Txapelketa Batzorde Teknikoa bilduko da **2014-09-10**an, Senior, Jubenil eta Kadete kategorien egutegiak eratzeko; haurren egutegia eratuko da **00-00-00**(e)an.

2.7.- EUSKAL LIGETAN, EUSKADIKO KOPA eta TORNEOTAN parte hartu ahal izateko, klub guztiek euren kontuak eguneratu beharko dituzte EUSKADIKO RUGBY FEDERAZIOAREKIN.

3.- HASIERA DATAK:

Aipatu txapelketen hasiera datak Txapelketa Batzorde Teknikoak zehaztuko ditu eta inskribatu klubetara helaraziko dira, horien hasierarekiko behar bezainbateko aurrerapenarekin.

4.- TALDE PARTAIDEEN KOPURUA:

4.1.- EUSKADIKO SENIOR LIGA (Partaidetza derrigorrezkoa da senior taldeak jardunean dituzten klub guztientzat)

4.2.- EMAKUMEZKOEN EUSKAL LIGAK, JUBENILA, KADETEA eta HAURRAK: INSKRIPZIO ASKEA

4.3.- SENIOR EUSKADIKO KOPAK ETA TORNEOAK, FEMENINOA, JUBENILA ETA KADETEA: INSKRIPZIO ASKEA

5.- JOKALARI PARTAIDEAK:

5.1.- Jokalari partaideen adinak:

SENIOR	1992an eta aurreko urtetan jaiok/Junior jokalaria, 1993an jaiok (txapelketa xedeetarako Senior dira)
JUBENILAK (Sub 21)	1994, 1995 eta 1996an jaiok
KADETEAK (Sub 18)	1997 eta 1998an jaiok
HAURRAK (Sub 16)	1999 eta 2000an jaiok
EMAKUMEZKOAK	Federazio lizentzia formalizatzeko unean 16 urte beteta izatea.

Salbuespen modura ahalbidetuko zaie klubei partidu bakoitzean lerrotatu ahal izatea
SEI JOKALARI 15 urte beteta dituztenak.

5.2.- TXAPELKETA NAZIONALEAN EDO SENIOR KATEGORIAKOAN PARTAIDE IZAN AHAL DIRA JOKALARI JUBENILAK (Sub 21), GORAGOKO KATEGORIAKO PARTIDU KOPURU ETENGABEAN, HORREGATIK BERE KATEGORIA GALDU GABE.

5.2.1.- AUTONOMIA EREMUKO JOKALARIAK, LIGA NAZIONALETAN LERROKATZEN DIRENAK, KATEGORIA NAZIONALERAKO ALDAKETA ESKATU BEHARKO DUTE, LERROKATZEN DIRENETIK HURRENGO BOST EGUNEN BARRUAN, ERF-REN ARABERA DAGOKION TASA ORDAINDUZ.

5.3.- SENIOR EUSKAL LIGAK: **SENIOR/JUNIOR** jokalari oro, liga NAZIONALEKOA, KATEGORIA NAZIONALEAN SEI PARTIDU jokatu dituenak, ezin izango da Euskal Ligetan lerrotatu.

5.4.- KATEGORIA NAZIONALEKO JOKALARIAK: LIGA NAZIONALETAN etenaldia gertatzen denean, aurreko jardunaldian TXAPELKETA NAZIONALEAN lerrotatua izan den jokalaria ezin izango da lerrotatu ondorengo Euskal Ligetako partiduan (ondorengo izanik, kategoria nazionalean jokatu partiduarekiko hurrengo asteburua); arau honetatik kanpo geratzen dira senior/junior kategoriako jokalaria, partidu hasieratik lerrotatuak izan ez direnak eta partidu bateko bigarren atletik aurrera soilik jokatzen dutenak.

EUSKADIKO ERRUGBI FEDERAZIOA ■ FEDERACION VASCA DE RUGBY

Errotaburu Pasealekua 1-3º (20018 Donostia-San Sebastian)

Tel.: 943 46 97 68 ■ Fax: 943 47 16 59

E-Mail: secretaria@euskadirugby.org – dptotecnico@euskadirugby.org – lehendakari@euskadirugby.org
www.euskadirugby.org



5.4.1.- JOKALARI JUBENILAK (Sub21): LIGA NAZIONALEAN etenaldia gertatzen denean, aurreko jardunaldian TXAPELKETA NAZIONALEAN lerrotatua izan denean, ezin izango da lerrotatu ondorengo SENIOR EUSKAL LIGAN (ondorengo izanik, kategoria nazionalean jokatu partiduarekiko hurrengo asteburua); arau honetatik kanpo geratzen dira senior/junior kategoriako jokalaria, partidu hasieratik lerrotatuak izan ez direnak eta partidu bateko bigarren ataletik aurrera soilik jokatzen dutenak.

5.4.2.- SENIOR/JUNIOR KATEGORIAKO JOKALARI ORORI, PARTIDU HASIERATIK LERROKATUA IZAN EZ DENARI ETA PARTIDU BATEKO BIGARREN ATALETIK AURRERA SOILIK JOKATZEN DUENARI, PARTIDUA EZ ZAIO KONTATUKO JARDUNALDI METATU BEZALA, BEHERAGOKO KATEGORIAKO BERE KLUBEKO BESTE TALDE BATEKIN LEHIATU AHAL IZATEKO DEBEKUARI DAGOKIONEZ.

5.4.3.- KATEGORIA NAZIONALEAN PARTIDU BATEKO BIGARREN ATALEAN JOKATZEN DUTEN JOKALARIAK EZIN IZANGO DIRA LERROKATU HURRENGO EGUNEAN, EUSKAL LIGETAKO BERE BIGARREN TALDEAREKIN.

5.5.- JOKALARI JUBENILAK (Sub 21), SENIOR EUSKAL LIGETAN LEHIATU AHAL IZANGO DIRA, KATEGORIA GORENEKO PARTIDU KOPURUA MUGAGABEA IZANIK, HORREGATIK EUREN KATEGORIA GALDU GABE.

5.6.- KADETEEN EUSKAL LIGA: HAURRAK kategoriako jokalaria lehiatu ahal dira, 1999. urtean jaiok.

5.6.1.- JOKALARI HAURRAK (Sub 16), 1999an jaiok, PARTIDU KOPURU MUGAGABEAN LEHIATU AHAL IZANGO DIRA, EUREN KATEGORIA GALDU GABE; BAINA DERRIGORREZKO KIROL ASEGURUAREN KUOTA DIFERENTZIA ORDAINDU BEHARKO DUTE. (kategoria goreneko taldearekin lerrotatu denetik hurrengo 5 egunen barruan).

5.7.- HAURREN EUSKAL LIGA: KIMUAK kategoriako jokalaria izan ahal dira partaide, 2001. urtean jaiok, euren Foru Aldundien baimen esplizituarekin; taldeak **mistoak** izan ahal dira.

5.8.- Jokalari bakar bat ezin izango da partaide jardunaldi berean (larunbata eta igandea) bi partidu ofizialetan, jokalariairen kategoria edo adina edozein direla ere.

5.9.- Edozein kategoriako Euskal Selektzio ezberdinetako Euskadiko Rugby Federazioak onartu kategorian azaltzen diren entrenamendutara edo partidutara deituak izan diren jokalaria, horietan parte hartzeko prest ez daudenean, ezin izango dira lerrotatu data edo asteburu berdinean zeinetan Selektzioko jarduera ospatuko den, euren klubekin beste kategoria bateko jardueretan edo txapelketetan, betiere bere adinarekin partaidetza ahalbidetzen den kasuetan; Jokalariairen lerrotatze desegokia kontsideratuko da xedapen honen konplimendu eza, Euskal Selektziotako jardueretan parte hartzeari espresuki uko egin ezean, idatziz, Federazi honen aurrean.

6.- JOKALARI KOPURUA, ADINAK ETA PARTIDUEN IRAUPENA:

6.1.- Aktaren barne hartu ahal den jokalariairen **gehieneko kopurua**, Euskal Ligetako edozein partidutan, edozein kategoriatan eta edozein modalitatetan (rugby 15 edo rugby 12) **22**koa da.

6.2.- Joko-eremuko jokalariairen kopurua:

6.2.1.- **RUGBY 15: Hasteko** partidu bat, joko-eremuko jokalariairen gutxieneko kopurua **11**koa izango da; joko jadanik hasi ondoren, taldetako bat **11 jokalariairen baino gutxiagorekin** geratzen denean partiduak **aurrera egin beharko du**, betiere ez dagoenean, epailearen esanetan, ageriko desabantailarik, jokalariairen **integritatea arriskuan jartzen duenik**.

Jokoa hasi ondoren, taldetako bat **9 jokalariairen baino gutxiagorekin** geratzen denean, partidu amaitutzat emango da, ageriko desabantailagatik.

EUSKADIKO ERRUGBI FEDERAZIOA ■ FEDERACION VASCA DE RUGBY

Errotaburu Pasealekua 1-3º (20018 Donostia-San Sebastian)

Tel.: 943 46 97 68 ■ Fax: 943 47 16 59

E-Mail: secretaria@euskadirugby.org – dptotecnico@euskadirugby.org – lehendakari@euskadirugby.org
www.euskadirugby.org



6.2.2.- **RUGBY 12:** Hasteko partidu bat, joko-eremuko jokalarien gutxieneko kopurua **10**ekoa izango da; jadanik jokoa hasi ondoren, taldetako bat **9 jokolari baino gutxiagorekin** geratzen denean partidua amaitutzat emango da, ageriko desabantailagatik.

Talde bat **12** jokalarirekin inskribatu denean, partidua **12** jokalarirekin lehiatu beharko da.

6.3.- **Lehen lerroko jokolari kopurua:** Aktan markatu beharko dira behar bezala entrenatuta dauden jokalariaik, lehen lerroan jokatzeko prestatuta daudenak. Partiduko aktan egiaztatuta azaltzea beharrezkoa izanik, lehen lerroko beharrezko jokolari-kopurua betetzea lortu ez denean.

6.3.1.- **Gutxieneko kopurua** jokalariaena, markatu behar direnena, ondorengoa da:

Aktako jokolari kopurua:	1. lerroko jokolari kopurua Behar bezala entrenatutako eta trebatutako jokalariaik:
15 edo 15 baino gutxiago	1. lerroan lehiatu ahal diren 3 jokolari
16, 17 edo 18	1. lerroan lehiatu ahal diren 4 jokolari
19, 20, 21, 22	1. lerroan lehiatu ahal diren 5 jokolari

Talderen batek arau hau betetzen ez duenean, partidua era guztietan **ospatuko da**; (Mele adostuak direla medio 1. Lerroko jokolari kopurua 3 baino gutxiagokoa izaten denean); baina:

- Epailleak, oharren orrian **adierazi beharko du** egoera hori eta telefonoz jakinaraziko du emaitzaren berri emateko unean.
- Amaiera emaitza **7 – 0** izango da, 1. Lerroko jokolari kopuru egokia aurkezten duen taldearen alde; sailkapenaren xedeetarako, **0 puntu** emango zaio 1. Lerroan behar bezainbat jokolari aurkeztu ez dituen taldeari eta **5 puntu** talde aurkariari.
- 1. lerroko jokolari eskuragarrien beharrezko kopururik gabeko bi talderen kasuan, sailkapenaren xedeetarako, talde bakoitzari **0 puntu** esleituko zaio.
- Partidua lehiatzen ez denean, jakinarazi gabeko ez agertzea bezala kontsideratuko da.

Arau hau aplikatu ahal izango da Rugby 15 eta Rugby 12 modalitatetan

6.4.- Edozein arrazoi dela medio aktan 15 jokolari baino gehiago barne hartzen dituen talde batek partiduen une jakin batean 1. lerroan lehiatzeko jokalaririk eskuragarri izaten ez duenean, eta hitzartu meletak kontuan hartuta lehiatu behar denean, ezin izango da jadanik ordeztua izan den eta hitzartu meletak eragin dituen jokalaria ordeztu. **Arau hau halaber aplikagarria da Rugby 15 modalitatean.**

6.5.- **KADETE eta HAURRAK kategoriako jokalariaik: derrigorrezkoa da partidu bateko partaide diren kategoria hauetako jokolari guztiak **aho-babesarekin** hornituak izatea.**

6.6.- **Partiduen iraupena:**

SENIOR	2 atal, 40 minutukoak
FEMENINOA 15	2 atal, 40 minutukoak
FEMENINOA 12	2 atal, 35 minutukoak
FEMENINOA 10	2 atal, 10 minutukoak
JUBENILAK	2 atal, 35 minutukoak
KADETEAK 15	2 atal, 35 minutukoak
HAURRAK 15	2 atal, 30 minutukoak



7.- ORDEZKAPENAK: Partiduen garapenean **ALDAKETAK ASKEAK** izango dira. (Joko-eremutik lesioagatik irtetzen den jokalarari ezin izango da berriro jokatzera itzuli. Jokalarari ordeztua aktan azaldu beharko da, partidua hasi aurretik. Arau hau aplikatuko da **“15”eko edo “12”**ko modalitatetan.

8.- LIZENTZIAK:

8.1.- Talde inskribatu guztiek euren lizentziak bideratuta izan beharko dituzte **BOST EGUN LEHENAGO** – gutxienez- txapelketak hasi aurretik, beharrezko kopurua kontuan hartuta.

8.2.- Klub guztiek **ENTRENATZAILE** eta **ORDEZKARI** lizentziarekin kontaktu beharko dute, txapelketako euren talde bakoitzeko.

8.3.- **JOKALARI** lizentzia bideratu orotan **ARGAZKI EGUNERATUA** azaldu beharko da. **Ez da onartuko bideratzea lizentziarik baldintza hau betetzen ez duenik.**

8.4.- **ATZERRIKO JOKALARIEN LIZENTZIAK:** E.R.F.-ko 4. Zirkularrean eskatzen den dokumentazioarekin hornitu beharko dira, baita dagokion pasaportearekin eta nortasun agiriarekin ere; behar den moduan aurkeztu ezean, jokalarari horrek ez du baimena izango **EUSKAL LIGETAN** eta gainerako txapelketa ofizialetan parte hartzeko; lerrokatua izaten bada, lerrokatze hori desegokitzat hartuko da.

8.5.- **PRESTAKUNTZARAKO DIRU-LAGUNTZA:** beste klub batetik datozen jokalarien lizentziak bideratzeko, E.R.F.-ren Araudi Nagusian xedatua bete beharko da (52-61 bitarteko artikulua).

8.6.- Igortzen diren federazio lizentzia guztien tasa **40,00 €**-koa izango da **-% 65** Euskadiko Federazioa (26,00€) – **-% 35** Lurralde Federazioak (14,00€).

8.7.- **INTERNET APLIKAZIOA:** Lizentziak bideratzeko prozedura Internet bidez garatu ahal da. Edonolako lizentzia motarako aurre-inskripzio inprimakiak: jokalaria, arbitroa, entrenatzailea eta zuzendaria lizentzien gestioa aplikaziotik eskuratzen dira. Derrigorrezkoa da interesdunak lizentzia –berria edo hedatua- eskaera bakoitzerako inprimakia betetzea eta sinatzea, horrez gainera klubaren zigilua eta Idazkariaren sinadura barne hartuko dituen.

9.- ALBOKO EPAILEAK:

9.1.- **EUSKAL LIGAK, URREZKO KOPA, EUSKADIKO KOPAK ETA TORNEOAK** txapelketetako partidua zuzentzea dagokien epaileak esleituko ditu **EUSKADIKO EPAILE BATZORDEAK**.

9.2.- Hegaleko Epaileak Federazioaren esleipenaren arabera hautatuko dira, hala badagokio edo bestela talde partaide bakoitzak banan-banan esleituko ditu, betiere horiek lizentziaren jabe izateaz gainera epailearen aldetik onartuak izaten direnean. Beharrezkoa izango balitz, epaileak eskatu ahal izango dio Kapitainari Lerroko Epaile bezala esleitzeko bere Taldeko jokalariren bat, partiduan partaide izango diren artean.

10.- “B” edo “C” TALDEAK:

10.1.- 2000ko uztailaren 15ean ospatu Batzorde Nazionalen onartuaren arabera; 1. Kategoriako Senior Euskal Ligan partaide diren **“B”** taldeak Liga Nazionalera **IGO AHAL IZANGO DIRA**.



10.2.- “B” edo “C” taldeak EUSKAL LIGETAKO partaide izan ahal dira; kategoria berean ordezkatzan dituen taldearekin kontatzen dutenean, euren izendapena ezberdina izango da eta jokalarien zerrenda itxia aurkeztu beharko dute; debekatuta dago talde hauek multzo berean eta aldi berean lehiatzea; talde biak sailkatzen direnean horietako bat beheagoko kategoriara jaitsiko da, baina arau hau ez da aplikagarria izango talde biak azken multzoan aldi berean suertatzen direnean.

11.- PUNTUAZIO SISTEMA (ERF Batzordea FER 09-07-2005)

- Partidu irabazia = **4 puntu**
- Partidu berdindua = **2 puntu**
- Partidu galdua = **0 puntu**

Gainera:

- Talde batek lau entsegu edo gehiago metatzen baditu partidu batean = **bonus puntu bat**
- Talde batek partidu bat galtzen badu, zazpi puntuko edo gutxiagoko diferentziarekin = **bonus puntu bat**

12.- PARTIDUEN ANTOLAMENDUA:

12.1.- EUSKAL LIGAK eta EUSKADIKO KOPAK txapelketetako partiduen antolamendua klubei dagokie zeinetan partiduak ospatuko diren, txapelketetako egutegiekin.

12.2.- Klubek derrigorrez izendatu beharko dute JOKO-EREMUKO ORDEZKARI bat eta KLUBEKO ORDEZKARI bat, zeinen funtzioak eta betebeharrak Euskadiko Rugby Federazioko Partidu eta Txapelketen Araudian xedatuak izango diren, derrigorrezko federazio lizentziaren jabe izatea ahaztu gabe.

12.3.- Partidua antolatu duten klubek DERRIGORREZ jakinaraziko diote klub aurkariari posta elektronikoko, telegrama edo fax bidez, partiduaren OSPAKIZUN DATA, ORDUA ETA TOKIA eta KAMISETEN KOLOREA, gutxienez partidua ospatzeko data baino 13 egun lehenago.

12.3.1.- Talde lokal batek partidu horretarako kamiseta kolore bat iragartzen duenean eta kolorea aldatzean hau talde aurkariaren kolore berekoa izaten denean, talde lokala izango da kamiseten kolorea aldatu beharko duena.

12.4.- Partidua antolatu duten klubek jakinaraziko diote EUSKADIKO RUGBY FEDERAZIOARI partiduaren OSPAKIZUN EGUNA, ORDUA eta TOKIA, posta elektronikoko, telegrama edota fax bidez, gutxienez partidua ospatzeko data baino 13 egun lehenago.

12.5.- Partidua hasi aurretik, klub bakoitzeko ORDEZKARIEK entregatu beharko dizkiote epaileari EZINBESTEAN jokalaria partaideen lizentziak; era berean jokalaria bakoitzak eramango duen dortsal zenbakia adieraziko diote, baita taldeko titular modura partiduaren hasieratik jardungo direnena ere.

12.6.- Epaileak zorrotasunez aztertuko ditu lerrokatuak izango diren jokalaria bakoitzaren lizentziak, derrigorrezko N.A.N. edo bestelako agiria eskatuz; edonolako zirkunstantzia dela medio lizentzia aurkezten ez denean, kasu honetan jokalaria akta sinatu beharko du jokalaria horri dagokion gunean eta aktan antzematen duen edonolako akatsen berri emanez; era berean debekatu egingo du lerrokadura jokalaria haiena zeinen nortasuna egiaztatze dokumentazioa ekartzeko baldintza beteko ez den, nortasuna egiaztatze eskakizunaren aarabera.

12.7.- Partidua antolatzen duen klubaren aldetik gomendatzen da joko-arauan osasun laguntza prestatuta izatea, istripuagatik edota lesioagatik eman beharreko lehen sorospenak kontuan hartuta.

EUSKADIKO ERRUGBI FEDERAZIOA ■ FEDERACION VASCA DE RUGBY

Errotaburu Pasealekua 1-3º (20018 Donostia-San Sebastian)

Tel.: 943 46 97 68 ■ Fax: 943 47 16 59

E-Mail: secretaria@euskadirugby.org – dptotecnico@euskadirugby.org – lehendakari@euskadirugby.org
www.euskadirugby.org



12.8.- EUSKADIKO RUGBY FEDERAZIOAK epaileari jakinaraziko dio, partiduaren ORDUA, EGUNA ETA OSPAKIZUN EREMUA zeinetarako esleitu izango den.

12.9.- FEDERAZIOAREN baimena lortu ezean eta interesdunen eskaeraren arabera, elkarrekin adostuta, partiduaren hasierarako adierazi datarekiko **HIRU ASTEKO** aurrerapen minimoarekin, EUSKADIKO RUGBY FEDERAZIOAK partidu horren data eta joko-eremu aldaketa baimendu ahal izango ditu.

12.9.1.- Zirkunstantzia berezien kasuetan, Kirol Diziplinazko Batzordea izango da epe laburragotan atzerapena agindu ahal izango duena. Partidua zuzentzeko Euskadiko Epaile Batzordeak esleitu epailerik eskuragarri ez izatearen zirkunstantzia jazo ahal da, kasu horretan Euskadiko Rugby Federazioaren Partidu eta Txapelketa Araudian xedatua jarraitu behar izanik.

12.10.- **PARTIDUEN DATAK ETA ORDUTEGIAK:** Hauek lehiatu beharko dira Txapelketa Egutegian esleitu datetan eta eremuetan; 2009ko uztailaren 18an Batzorde Nagusian hitzartuaren arabera, jardunaldi bakoitzaren hasiera ofizial modura ezartzen da larunbata 15:30etatik 19:30etara, klub lokalak jokorako larunbata ezarri dezan ahalbidetuz, federazioarekin edo klub bisitariarekin harremanetan jarrita partidua ospatuko den asteko astelehenaren 20:00ak baino lehen. Igandean ospatzen diren partiduen ordutegia ondorengoa da: 09:30etan partiduen hasiera eta 15:30etan partiduen amaiera; Norgehiagokan ari diren klubak halaber ados jarri ahal izango dira partidua adierazi orduetan ez diren beste batzuetan jokatu ahal izateko; kasu horretan adostasunaren berri eman beharko zaio Euskadiko Rugby Federaziori, gutxienez partidua ospatzeko data baino hamahiru egun lehenago. Ezohiko kasuetan C.D.D.-ren baimena eskuratu ahal da partidua ordutegi horretatik kanpo jokatzeko.

12.4.- Partidua antolatu duten klubek jakinaraziko diote EUSKADIKO RUGBY FEDERAZIOARI partiduaren OSPAKIZUN EGUNA, ORDUA eta TOKIA, posta elektronikoko, telegrama edota fax bidez, gutxienez partidua ospatzeko data baino 13 egun lehenago.

12.10.1.- Ezinbesteko arrazoiengatik soilik eten edo atzeratu ahal izango ditu partidua, partaideen arriskuak saihesteko edo kalte ekonomikoko larriak saihesteko KIROLO DIZIPLINAZKO BATZORDEAK, partiduko talde aurkari biengana eta epailearengana jakinarazpena helarazteko ardura izanik, hori guztia Euskadiko Rugby Federazioko Partidu eta Txapelketa Araudian epaileentzat xedatu eskubideei utzi gabe.

12.10.2.- Kasu horietatik kanpo, klubaren arteko adostasuna eta arrazoi egiazatuak direla medio Kirol Diziplinazko Batzordeak partiduaren atzerapena baimendu ahal izango du, epe bat emanez, klub biak adostu dezaten eta data berria finkatu dezaten, hain zuzen C.D.D.-ri proposatuko zaiona; atzera botatzen bada, Batzorde horrek partidua ospatzeko data berria finkatuko du. Txanda bikoitzaren arabera partidua jokatuko dira 1. Txanda atzeratuak izaten direnean, 2. Txanda hasi aurretik, eta 2. Txanda atzeratuak izaten badira azken hiru jardunaldiak baino lehen ospatu beharko dira, talde horiek euren sailkapena dela eta Fase Finaletan edo Igoera fasean parte hartzeko eskubidea badagokie.

12.10.3.- Klubek ezin izango dituzte lagunarteko partiduen edo bestelako txapelketen ospakizunak atzeratu, txapelketen egutegi ofizialean jadanik jardunaldiaren berri eman denean.

12.10.4.- Aplikatu beharreko isuna alde batera utzita eta ERF/FVR-ko RPC-an xedatuaren arabera, ez agertzea behar bezala arrazoitua izan ez denean, partiduen batera agertzen ez diren klubek zigor ekonomikoa jasango dute ERF/FVR-ko Altxortegiak objektiboki kalkulatu duen gastuaren baliokidea izango den kopuruaren arabera, ez agertzea dagokion partidua ospatzeko beharrezkoa litzatekeen lekualdatzeari dagokiona.

13.- PARTIDUETAKO AKTEN IDAZKETA:

13.1.- Euskadiko Rugby Federazioko Partidu eta Txapelketa Araudian xedatuaren konplimendu zorrotza eskatuko da akten idazketari dagokionez, baita **KLUBEKO** eta **JOKO-EREMUKO ORDEZKARIEN** zereginen eta betebeharren arloari dagokionez ere.

EUSKADIKO ERRUGBI FEDERAZIOA ■ FEDERACION VASCA DE RUGBY

Errotaburu Pasealekua 1-3º (20018 Donostia-San Sebastian)

Tel.: 943 46 97 68 ■ Fax: 943 47 16 59

E-Mail: secretaria@euskadirugby.org – dptotecnico@euskadirugby.org – lehendakari@euskadirugby.org
www.euskadirugby.org



13.2.- Bai **KLUBEKO ORDEZKARIA** eta bai **KAPITAINAK** lerrokadura datuen egiazkotasunaren arduradunak dira.

14.- EMAITZEN JAKINARAZPENA:

Partiduko epaileak jakinarazi beharko dio emaitza EUSKADIKO RUGBY FEDERAZIOARI eta gertakizunak ere bai, hala badagokio, **partiduaren ondorengo asteleheneko 10:00ak** baino lehen, posta elektronikoko bidez ondorengo helbidean: **E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org**

15.- JOKALARIEN JANTZIAK:

EUSKAL LIGAK, EUSKADIKO KOPAK, URREZKO KOPA eta TORNEO FEMENINOA txapelketetako talde partaideetako jokalariek behartuta daude joko-eremura irtetera, dagokien uniformearekin, bere klubeko kolore bereizleekin eta identifikatzeko dagokion zenbakiarekin; partidu batean bi klub elkarrekin lehiatzen direnean, uniforme berdinarekin edo oso antzekoarekin, nahastea sortzeko moduan, bere uniformea aldatu beharko du ezberdin batengatik, etxetik kanpo lehiatuko den taldeak. Partidua joko-eremu neutralean lehiatzen denean berriz, uniformea aldatzea dagokio harpidetza berriren klubari.

16.- JOKO-EREMUAK:

16.1.- Klub antolatzaileak bere joko-eremuan programatu beharko du; norbere joko-eremuarekin kontaktu ezean, beharrezkoa da FEDERAZIOAREKIN harremanetan jartzea, joko-eremuaren bilaketa erraztu ahal izateko.

16.2.- Partiduaren klub antolatzaileak, norbere joko-eremua erabilgarri izaten duenean, PUBLIZITATE HEZIEN instalazioa ahalbidetuko du, EUSKADIKO ERRUGBY FEDERAZIOA enpresa babesleekin hitzarmena sinatzera heltzen bada, eta enpresa horietako ordezkarien sarbidea ahalbidetuko du halaber ikusleen artean opariak banatzeko.

16.3.- Joko-eremuetan Joko Araudian adierazi baldintzak bete beharko dira.

16.4.- Joko-eremuak behar bezala markatu beharko dira, marka lerroetako banderatxo malguak, baloi geldia, erdi-gunea eta 22 metroak kontuan hartzea ahaztu gabe.

16.5.- Segurtasun arauak betetzea, esaterako behar bezainbat babestutako makil eta ureztatze-ahoen inguruko oinarriak.

16.6.- Joko-eremuaren eta ikusle-eremuaren artean oztopo edo elementu fisikoren bat ezarri beharko da, bi gune horiek bereiziko dituen. Bereizteko hezirik gabeko joko-eremutan, gune hori gutxienez plastikozko zintarekin markatu beharko da.

16.7.- Kluben batek joko-eremuaren baldintzak desegokitzat hartuko balitu partidua hasi aurretik, egiaztapen izapideak partidua hasi aurretik egin beharko dira. Epaileak beharrezko neurriak hartuko ditu, akatsak partidua hasi aurretik zuzendu ahal izateko. Hori ezinezkoa izango balitz, epailearen esanetan, partidua ospatu edo atzeratu egingo da; atzeratu egiten den kasuetan, partidua errepikatzeagatik ordaintzea dagozkion gastuak talde antolatzaileari egotziko zaizkio.

16.8.- Partiduaren garapenean zehar, perimetro babes-gunean soilik mantendu ahal izango dira taldetako masajistak, joko-eremuko ordezkaria, agente agenteak eta entrenatzaileak. Gainerako guztiak, ordezkari jokalariek barne, ikusle-gunean finkatuko dira, zeinetan talde bakoitzari dagokion gunea mugatuko zaion, biak ere albo berdinean ezarriak izanik.



16.8.1.- AULKIAK:

3 x 10 m-ko (gehienez) GUNE angeluzuzena definitzen da, aulki bakoitzaren inguruan

. Horretarako, lerroak horrela marrazten dira:

- 5 metro albo banatan, joko-eremuaren erdiguneko lerroaren ardatzetik,
- hegaletan, aulkiaren ertz bakoitzetik metro batera,
- Atzealdean, barreratik metro batera,

- EZINEZKOA IZANGO DA HEGALEKO LERROTIK METRO BAT BAINO GUTXIAGOKO DISTANTZIAN EZARTZEA

– AULKIKO PERTSONEN BESOKO BEREIZLEAK

Talde baten aulkian ezartzeko baimenduta dagoen edonor PARTIDUAREN AKTAN BEHAR BEZALA IDENTIFIKATUTA AZALDU BEHARKO DA, INDARREAN DAGOEN DAGOKION LIZENTZIAREKIN, partidu horretan dagokion funtzioaren arabera koloreko besoko bereizlea ezarrita.

KLUB BAKOITZAK ONDORENGO BESOKOAK IZANGO DITU ESKURAGARRI, ONDORENGO KOLORE ETA PETOEKIN, BI URKETARIENTZAT.

Besokoen koloreak izango dira:

1. GORRIA: ENTRENATZAILEA (1)
2. BERDEA: MEDIKUA (1)
3. URDINA: FISIO (1)
4. ZURIA: JOKO-EREMUKO ORDEZKARIA (1)
5. HORIA: TALDE BAKOITZEKO ORDEZKARIA (1)
6. PETOAK: BI TALDEEN KOLOREAK EZ BEZALAKO KOLOREKOA; URKETARIAK (2 talde bakoitzeko)

Klub bakoitzak gutxienez bi besoko sorta izango ditu erabilgarri eta aulkian ezartzeko pertsona baimenduentzat eskuragarri jarriko dituzte, horiek behar bezala identifikatzearren.

BEREIZLE HORIEKIN IDENTIFIKATU GABEKO INOR EZIN IZANGO DA AULKI BAKAR BATEAN EZARRI.

ZIGORTUA IZAN DEN INOR EZIN IZANGO DA AULKI BAKAR BATEAN EZARRI.

JOKO-EREMUKO ORDEZKARIA IZANGO DA ARAUDI HAU BETETZEAREN ARDURADUNA

Aulkian ezartzeko baimenduta dauden pertsonen portaera

Aulkian ezartzeko baimenduta dagoen edonor zigortua izan ahal da arbitroaren aldetik, txartel gorriarekin

Erabaki horiek hartu ahal izango dira ondorengo kasuetan:

- esleitu gunetik jakinaren gainean eginiko irteera
- jendaurreko protesta edota kiroltasunaren kontrako jarrera
- isekak edota portaera desegokiak, joko-eremuko ofizialetako batengana zuzentzeko orduan.

ZER EGIN BEHAR DUTE KANPORAKETAREN KASUAN:

Besoko bereizlea daraman aulkiko edozein pertsona behin-betiko kanporatua izan denean, joko-eremua utzi beharko du berehala eta ezin izango da ordeztua izan aulkian.

AULKI BATEAN PARTIDUAREN AKTAREN ARABERA BEREZILERIK EZ DARAMAN EDOTA BEHAR BEZALA IDENTIFIKATU GABE DAGOEN EDO JADANIK ARBITROAK KANPORATU DUEN NORBAIT EZARRITA AURKITZEN DENEAN ETA ORDEZKARIAK EDO ARBITROAK AULKITIK JOATEKO AGINTZEN DIOTENEAN BEREHALA AGINDUA BETETZEN EZ BADU, ARBITROAK PARTIDUA ETEN EGINGO DU ETA BESTE BEHIN ERE AULKIA UTZIKO EZ DUELA BERRESTEN BADU, ARBITROAK PARTIDUA AMAITUTZAT EMANGO DU.

EUSKADIKO ERRUGBI FEDERAZIOA ■ FEDERACION VASCA DE RUGBY

Errotaburu Pasealekua 1-3º (20018 Donostia-San Sebastian)

Tel.: 943 46 97 68 ■ Fax: 943 47 16 59

E-Mail: secretaria@euskadirugby.org – dptotecnico@euskadirugby.org – lehendakari@euskadirugby.org
www.euskadirugby.org



17.- TXAPELKETEN IKUSKAPENA:

EUSKAL LIGAK, EUSKADIKO KOPA eta TORNEO FEMENINOEN txapelketak ikuskatzea dagokie Euskadiko Kirol Diziplinazko Batzordeei, indarrean dauden Euskadiko Rugby Federazioko Diziplinazko, Partidu eta Txapelketa Araudietan hala nola txapelketetako araudi berezietan eta derrigorrezko konplimendua eskatzen duten bestelako arau osagarrietan xedatuaren arabera.

18.- JOKO-EREMUKO SARBIDEAK:

Kategoria guztietako EUSKADIKO SELEKZIOEK eta EUSKADIKO EPAILE BATZORDEAN adskribitutako ARBITROEK sarbide askea izango dute EUSKAL LIGETAKO ETA TXAPELKETA NAZIONALETAKO partidu guztiak ikusi ahal izateko.

19.- OHARRAK:

19.1.- KLUBEKO ORDEZKARIAREN ez agertzea **50,00** eta **100,00 € (txapelketa mailaren arabera)** bitarteko isunarekin zigortuko da, arau-haustea egiten den bakoitzean; ORDEZKARI hori ezin izango da partiduko partaidea den edo izango den jokalarietako bat.

19.2.- JOKO-EREMUKO ORDEZKARIAREN ez etortzea **50,00** eta **100,00 € (txapelketa mailaren arabera)** bitarteko isunarekin zigortuko da, arau-haustea egiten den bakoitzean.

19.3.- Klub antolatzaileak KLUB AURKARIARI edo EUSKADIKO RUGBY FEDERAZIOARI jakinarazpena igortzeko betekizuna konplitzen ez duenean **35,00** eta **100,00 €** bitarteko isuna ordaindu beharko du arau-haustea egiten duen bakoitzean, araudi honetako 12. artikulua 3 eta 4 ataletan adierazten denaren arabera.

19.4.- **JOKALARIEN ARAU-HAUSTEAK:** Kontuan hartuko da kirol denboraldi jazotako hirugarren “behin-behineko kanporaketa”, etenaldiko partidu ofizial bat (1) suposatuko duena, Euskadiko Rugby Federazioko Partidu eta Txapelketa Araudian xedatuaren arabera. Xede horietarako dagokio Kirol Diziplinazko Batzordeari aipatu behin-behineko kanporaketa horiek erregistratzea.

19.4.1.- Horiek behin-behineko partiduen aktan arazoitu beharko dira.

19.5.- Zirkular honetako 16.8.1) puntuan xedatua betetzen ez denean, klub arau-hausleari zigorra egotziko zaio **100,00** eta **200,00 €** artekoa (**txapelketaren maila kontuan hartuta**) arau-haustea egiten den bakoitzean.

20.- LAGUNARTEKO PARTIDUAK:

Klubek lagunarteko partidu mota guztiak ospatu ahal izango dituzte; betiere ERF-ko Araudi Nagusiaren (84. art.) eta Euskadiko Kirol Federaziotako Dekretuaren (8 eta 9 art.) arabera, ERF/FVR gogoraraztera dator antolatu nahi den edonolako kirol jarduerak Federazioaren edo eskumeneko organismoen baimenarekin kontatu beharko duela (Ikusi dokumentu erantsia).

Era berean, partidu horiek ERF/FVR-ko Partidu eta Txapelketa Araudian xedatuaren arabera zuzenduko dira.

21.- EZ AGERTZEAK JUBENIL ETA KADETE KATEGORIAK:

HIRUGARREN ez agertzeak, denboraldi eta txapelketa berean, txapelketatik kanporatzea suposatuko du, **JUBENIL** eta/edo **KADETE** kategorietan gertatzen denean.



22.- INDARRALDIA

1. zirkular honetan xedatua indarrean jarriko da igortzen den datatik aurrera eta indargabetu egingo da aipatuen kontrako lehenago eman izan zen edozein arau, izan ere Euskadiko Federazioak eta/edo bere kasuan Batzorde Teknikoek arauak zuzendu edo aldatu ahal izango dituzte, euren ahalmenak direla medio, hala badagokio.

Donostia-San Sebastian, 2014ko irailak 17

M^a Victoria Gil Arregi
Idazkari Administraria



INSKRIPZIO-ORRIA/HOJA INSCRIPCION - EUSKAL LIGAK/LIGAS VASCAS TEMPORADA 2014-2015 DENBORALDIA

KLUB/CLUB: _____

Taldearen izena/Nombre equipo: _____

Posta helbidea: Dirección Postal:	Telefonoa/Telefono:
	Faxa/Fax:
	Mugikorra/Movil:
	E-maila/e-mail:
Web orria/Página web:	

Izen-ematea:	EUSKAL LIGA SENIOR MAILA/LIGA VASCA SENIOR	1.000,00
Inscripción:	EUSKAL LIGA EMAKUMEZKOEN MAILA/LIGA VASCA FEMENINA	950,00
	EUSKAL LIGA GAZTEEN MAILA/LIGA VASCA JUVENIL (Sub 21)	850,00
	EUSKAL LIGA KADETEEN MAILA/LIGA VASCA CADETE (Sub18)	850,00
	EUSKAL LIGA HAURREN MAILA/LIGA VASCA INFANTIL (Sub 16)	300,00
	EMAKUMEZKO TORNEOA R7/TORNEO FEMENINO R7	150,00
	EPAILEEN ESKUBIDEAK/DERECHOS ARBITRALES:	
	1.Taldea/equipo	750,00
	2.Taldeak/equipos	1.500,00
	3. Taldeak/equipos	1.750,00
	4.Eta/edo talde gehiago/4 y/o mas equipos	2.000,00

Inskripzioen ordainketa transferentzia edo txeki bidez EUSKAL RUGBY FEDERAZIOAREN izenean egin beharko da, BBVA-ko **0182 5709 41 0201502070** kontu korrantean.

El importe de las inscripciones deberá hacerse efectivo mediante cheque o transferencia bancaria a nombre de la FEDERACION VASCA DE RUGBY, **cta.cte nº 0182 5709 41 0201502070** del BBVA.

Talde	SENIOR	JN.	Tf:
Arduradunak:	EMAKUMEZKOAK FEMENINO	JN.	Tf:
Responsables	GAZTEAK JUVENIL	JN.	Tf:
Equipos:	KADETEAK CADETE	JN.	Tf:
	HAURRAK INFANTIL	JN.	Tf:

En _____ (e)n, 2014ko _____ ren _____ (e)(a)n
a _____ de _____ de 2014

Klubaren izenean/Por el Club (Sinadura eta Zigilua/firma y sello):

Oharra: Naiz eta 2013/14 denboraldian taldeak jardunean izan, derrigorrezkoa da inskripzio-orria hau Federaziora bidaltzea, datorren denboraldian aipatu mailetan parte hartuko duten taldeak adierazita. Inskripzio-orri hau bidaltzen ez baduzue, lehiaketan parte hartzeari uko egiten diozuela ulertuko dugu.
Nota: Remitir **obligatoriamente** esta hoja de inscripción a la Federación, indicado todos los equipos que vayan a intervenir en la próxima temporada en las citadas categorías, **aunque ya tuviesen equipos en la temporada 2013/14**. La no presentación de esta hoja de inscripción se entenderá como renuncia a la competición.

Banku-transferentziaren ordainagiria eranstean da/Se adjunta recibo transferencia bancaria

